



Uztailean kaleko giro epelean gozatzeko ekitaldiak izango dira

TOLOSA ▶ Gau Giroko ekitaldiez gain, beste hainbat ere izango dira hilabete honetan

LEIDOR ▶ Leidor zinemako pantailari agurra emateko saioak izango dira asteburu honetan ▶ 3



Leidor zinema aretoa. M.SOROA



III. Garagardo Azoka martxan da atzotik bihar arte, Ikastolaren alde

IRURA ▶ Atzo arratsaldean ireki zuten III. Garagardo Azoka. Ikastolaren aldeko ekimen honek herri osoa jarri du lanean. Gaur eta bihar hainbat garagardo eta jaki mota dastatzeko aukera izango dute frontoira joaten direnek. IMANOL GARCIA ▶ 4

VILLABONA-AIZTONDO ▶

Emakumeen Euskadiko Txirrindulari Txapelketa ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

San Pedro jaiak azken txanpan sartzen dira Areson, Asteasun eta Urkizun

Atzo Koadrilen Eguna izan zuten Asteasun; gaurko ere hamaika ekintza antolatu dituzte ▶ 5



Atzoko bazkaria. N.LATABURU



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- ▶ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- ▶ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- ▶ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

MATRIKULA IREKIA:
ekainaren 30etik uztailearen 6ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



ERAKUSKETA ▶



Pintura. Pintura lanak dira nagusi ikasleen erakusketa honetan. Guztira 75 ikasle aritu dira Jose Luis Longaronekin eta horietatik gehienek jarri dituzte bere koadroak zintzilik Aranburu Jauregian. Olio teknika erabiltzen dute gehienek eta era askotako gaiak. JOXEMI SAIZAR



Zeramika. Horrelako ontzi eta lanpara ikusgarriak egin dituzte Arantxa Munitarekin zeramika landu duten ikasleek. Tornua erabiltzen ikasi arren, gutxi erabiltzen dutela dio irakasleak. J.SAIZAR



Pintura. Erretratoak, paisaiak, bodegoiak, abstraktoak... denetatik ikus daiteke ikasleen lanen artean. Gaur ere izango da erakusketa ikusteko aukera. J.SAIZAR



Egurra. Gutxi izan arren, egurrekin egindako lan dotore batzuk ere badaude erakusketan. Kontxi Arrizurieta irakasle leitzarrekin aritzen dira teknika hau ikasten. J.SAIZAR



Zeramika. Ontziez gain, eskultura batzuk, plantzak, mahaiaik, belarritakoak, irudiak... ere egin dituzte zeramika ikasleek urtean zehar eta orain Aranburu Jauregian erakutsi, ikasturte bukaerako erakusketan. J.SAIZAR

Ikasturtean egindako eskulanik dotoreenak

Kultur Etxeko tailerretako ikasleek bere lanak jarri dituzte Aranburu Jauregian, batez ere pintura eta zeramika lanak

JOXEMI SAIZAR

Ikasturtean zehar gogor lanean aritu eta lan horren fruturik dotoreena jendaurrean erakusteko tenorea iritsi zaie Kultur Etxeko tailerretako ikasleei. «Ikasturte bukaera eta sanjoan bat datozenez, ikasleen lanen erakusketa antolatzeke garai egokia iruditzen zaigu», azaldu dio HITZARI Jose Luis Longaron pintura irakasleak.

Bereak dira Aranburu Jauregian bere koadroak ikusgai jarri dituzten ikasle gehienak. Hemezortzi bat urte daramatza Longaronekin lanbide honetan —ibarran ere irakasten du— eta urteroko ohitura bilakatu da erakusketarena. «Olioa lantzen dute gehienek, akuarela berriz, oso gutxi, oso konplikatu delako», azaldu du.

Erakusketarako urtean zehar egindako lanik politenak

aukeratzen dituzte. Beste batzuk jendaurrean erakustera ez omen dira ausartzen. Ikasle hauetako askok Txinparta elkarteak antolatu berri duen lehiaketan parte hartu dute.

Betiko ikasleak eta berriak

Pinturarekin batera, zeramika lan ugari ikus daiteke Aranburu Jauregian. «Tornua erakusten dugu, baina gutxi anima-

tzen dira erabiltzera. Gehienak eskultura, modelatuak... egiten dituzte», dio Arantxa Munita zeramika irakasleak. Aspaldi hasitako ikasleekin batera aurtun 6-7 berri ere badirela eta gauza berriak egin dituztela aipatu du: mahaia, plantzak, belarritakoak...

Kontxi Arrizurieta leitzarrekin egurra landu duten ikasle batzuk ere bere lanak ikusgai jarri dituzte ikasturte bukaerako eskulan erakusketan honetan.

Mari Carmen San Miguelekin ehoziak landu dituzten ikasleek ere bere lanak jartzekekoak ziren, baina azkenean ez da horrela izan.

Oraindik bada kultur tailerretako ikasle hauen lanak ikusteko aukera, gaur ere zabalik egongo delako Aranburu Jauregian beheko solairuan 17:30etik 20:30era.

Adin guztietakoak

Adin guztietako ikasleen lanak topa daitezke erakusketan honetan. «19 urtetik hasi eta 76 urte arterainoko ikasleak ditut», azaldu du Arantxa Munitak. Batzuk gustua hartu eta errepikatu egiten dute. «Duela 18 urte hasi ginenetik jarraitzen duten ikasleak baditugu. Beste batzuk hamar urtetik gora daramate», dio Longaronekin.

Gazteak, helduak, adinekoak... denek dute bere zaletasuna lantzeko aukera: pintura, eskultura, egurra, zeramika, ehoziak, argazkigintza... Urtero irailtik aurrera Kultur Etxean hasten dira eskulanetako ikastaroak. ◀

KULTURA ▶

Uztaileko ekitaldiak, kaleko giro epelean

Gau Giroren baitako ekimenak eta Leidor aretoko pantailari agurra emateko zinema saioak izango dira, besteak beste

IRATXE ETXEBESTE

Leidor zinema aretoko pantaila erraldoiari agurra emateko antolatu dituzten saioak, Gau Giro programaren baitako dantza eta musika ikuskizunak eta bestelako ekimen batzuk daude uztaileko iragarri. Oporretara ez doazenez badute, beraz, herrian askotariko ekitaldiez gozatzeko modua. Hilaren hasieratik bukaerara, egunez egun izango direnak dira hauexek:

AZOKA

XI. Azoka Ekologikoa. Produktu ekologikoen erakusketa eta salmenta gunea jarriko dute gaur, 09:30etik 14:30era, Trianguloan. Ekimen horren baitan, Nekazaritza ekologikoen trebatzeko-ren diploma banaketa egingo dute Kultur Etxean, 11:00etan hasita. Askotariko produktuak erosteko aukera izango da, eta horrez gain informazio mahaia jarriko du Ekonekazaritza elkarteak, nekazaritza ekologikoarekin lotutako liburu, aldizkari eta informazio orriekin. Tolosako Udalak eta Biolurrek antolatu dute ekimena, 11. urtez.

DANTZA

Kolonbiako balet folklorikoa. Gau Giro-ren baitan, Kolonbiako balet folklorikoak jardungo du haien herrialdeko eta Euskal Herriko dantzak eskaintzen

hilaren 21ean. Euskal Herria plazan eskainiko dute emanaldia, 22:30etik aurrera.

ERAKUSKETAK

Dick Rekalde. Dick Rekalderen pintura erakusketa Aranburu Jauregian dago ikusgai uztailearen 9a bitarte. Asteleheneretan eta jaiegunetan izan ezik, egunero egongo da zabalik, 17:30etik 20:30era.

Kultur tailerretako ikasleak. Ikasturte osoan zehar kultur tailerretan parte hartu duten ikasleek egindako lanak ikusteko azken eguna da gaurkoa. Aranburu Jauregian dute jarri- ta eskulanean erakusketa, eta 17:30etik 20:30era izango da zabalik.

IKASTAROA

Tai-chi. Tai-chi ikastaroa antolatu dute uztaileko. Asteleheneretan eta asteazkenetan izango dira eskolak, 19:45ean hasi eta 20:45era arte, Kultur Etxean. Informazio gehiago nahi duenak telefono zerbaki honetara dei dezake: 943 79 74 55.

JARDUNALDIAK

Herritarren Partaidetzakoak. Herritarren Partaidetzako Jardunaldiak antolatu dituzte, hilaren 8an eta 9an, udal-etxean. Ostiralean 19:30ean hasiko dira, eta larunbatean, berriz, 09:30ean eta 16:00etan izango dira jardunaldi horiek udal-etxean.

MUSIKA

Tolosako Musika Banda. Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du gaur Amaro- zuzokoiaren baitan Abeslari Lagunak abesbatzarekin batera. 20:00etan izango da, futbol zelaiaren parean. Kontzertu-aren amaieran ariko dira bi taldeak elkarrekin.

Bidaia bikotea. Mixel Ducau eta Caroline Phillips bikoteak kontzertua eskainiko du hilaren 8an, ostiralarekin, Plaza Berrian. 22:30ean hasiko da kantaldia.

Gonzalo Tejada Trio. Gonzalo Tejada baxujolearekin batera ariko dira Iñaki Salvador pianojolea eta Mikel Andueza saxofoijolea, saxofoi altua eta sopranoa jotzen. Fronton kafetegian eskainiko dute kontzertua, hilaren 15ean, ostiralarekin, 22:30etik aurrera.

Tolosako Musika Bandaren aparteko kontzertua. Tolosako Musika Bandak San Ignazio-ko aparteko kontzertua emango du hilaren 29an, ostiralarekin, Plaza Berrian.

ZINEMA

'La guerra de las galaxias'. Gaur eskainiko dute film hori Leidor aretoko pantaila erraldoiari agurra egiteko. 2 euro balio du helduen sarrerak eta haurrak doan sartuko dira. 19:30ean hasiko da.

'Euriaren seme-alabak'. Gaur izango da filma, 16:30ean, hau-



Dick Rekalderen artelanak ikus daitezke Aranburu Jauregian. HITZA

Zinema saio bereziak

«Leidor aretoak atekak itxiko ditu urtebetez, bertan berritze lanak egiteko. Hori dela-eta zinema saio bereziak antolatu dira guztiontzat astebururako». Hitz horiekin egin zuten udal ordezkariak herrian sortu berri duten zinemazaleen taldearekin Leidor zinema antzokiko pantaila erraldoiari agurra emateko antolatu duten ekimenaren aurkezpena.

Atzo izan zen eskainiko dituzten zinema saio horien lehen proiektzioa, eta gaur eta bihar artean eskainiko dituzte gainerakoak. Antolatzaileen esanetan, aukeratutako filmak ez dira nolana hikoak, Leidorreko pantaila handiari agur esateko garaia dela aintzat hartuta, besteak beste, adin guztietako herritarrekin pentsatuta hautatu nahi izan di-

tuztelako. Horrez gain, «film onak» ekartzeko asmoa izan dutela adierazi dute.

Hala, *La guerra de las galaxias* trilogia entzutetsuaren azken zatia eskainiko dute gaur (19:30) eta bihar (22:00) Leidorren gazteentzat eta helduentzat. Ikus-entzule talde berari zuzenduta aukeratu dute aurtengo Oscar sarietan arrakasta handia lortu duen *Million dolar baby* filmeko protagonista bera duen *11:14 destino fatal* filma; hori ere gaur (22:00) eta bihar (19:30) izango da. Eta haurrentzat, berriz, *Euriaren seme-alabak* eskainiko dute gaur (16:30).

Leidor aretoko azken saioak izango dira horiek. Eta horrexegatik haurrek doan izango dute sarrera, eta helduek, berriz, 2 eurotan. ◀

BESTELAKOAK

Globoa. Eguraldiak ez zuen lagundu aurrekoan, eta Alde Zaharreko Dendak Elkarteak antolatuta, globoa jarriko dute hilaren 16an, larunbatean, berriz, baina oraingoan Euskal Herria plazan, herritarrek globoaz gozatu ahal izan dezaten. 20:00etatik aurrera izango da.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Nolako bidaia dituzu gustuko: bidaia antolatuak; motxila bizkarrean, aventura bila; kostaldera, eguzkia hartzer; Euskal Herria ezagutzera...?

Eztabaida. Bidegorria inauguratu dute berriki Tolosan; zer irtzi duzu bere ibilbidearen gainean?

Edizio jarraitua. Eguneko egunkarian ateratako albisteak Interneten irakurtzeko aukeraz gain, azken orduko berriak ere aurkitu ahal izango dituzu Hitzaren web orrialdean.

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK

BI LANPOSTU BETE BEHAR DITU

1-Atezaina eta mantentimendu arduraduna izango dena.
2-Zerbitzu osagarrien buru, arlo ekonomiko titulua duena.

Curriculumak e-mailaz bidali behar dira tolosa@ikastola.net zuzenbidera. Jasoko diren azken eguna, uztailak 8

EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
URBILETIK EZAGUTZEKO

TOLOSAN, uztailak 2, larunbata

XI. AZOKA BEREZIA

Ogia
Fruta
Barazkiak
Arrautzak
Pastak
Gozoak

EUSKADI
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
URBILETIK EZAGUTZEKO

Gazta
Ardoa
Sagardoa
Esnea
Eztia
Mermelada
Pintxoak

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK

EKO

AMEZKETA ▶

XVI. Joxean Tolosa pilota txapelketaren partiduak

N. LATABURU

Amezketako XVI. Joxean Tolosa Txapelketa atzo gauean hasi zen. Gaur eta bihar bitartean ere neurketa ugari jokatu dira, bi mailatan banatuta, kadeteak eta gazteak, hain zuzen ere. Gaur bi txandatan banatu dituzte neurketak; lehenengoa 16:30ean, non kadeteen bi partidu eta gazteen beste bi jokatu diren eta bigarrena 22:00etan, partidu kopuru berberekin. Bihar, 16:30ean jokatu dira neurketa guztiak.

Hauek dira norgehiagokak: gaur 16:30ean kadeteetan, Esnaola (Usurbil)-Errazkin (Bidania) eta Arretxe (Villabona)-Artola (Amezketak). Gazteetan, Mina (Burlada)-Esnaola (Andoain) eta Urrutia (Txaruta)-Esnaola (Zubi-laga). 22:00etan, kadeteak Nazabal (Zaldibia)-Albisu (Ataun) eta Iribar (Antiguo)-Arratibel (Ataun). Gazteetan, Agirre (Olazti)-Azkarate (Oñati) eta Zabala (Aduna)-Fernandez (Olazti).

Bihar, kadeteetan, Iraola (Beasain)-Diez (Arrigorriaga) eta Yeregi (Azpeitia)-Goienetxe (Bera). Gazteetan Fernandez (Antiguo)-Goñi (Txaruta) eta Azkarate II (Oñati)-Iraola (Añorga)..

IRURA ▶ III. GARAGARDO AZOKA

Ekin diote Ikastolaren aldeko jaiari

I. Garcia ▶ Atzo arratsaldean ireki zuten Irurako III. Garagardo Azoka. Herri guztiaren artean antolatuta dute festa. Atzo gazteek hartu zuten zerbitzua-ren ardura. Gaur eta bihar ere izango da zer jan eta zer edan. 18:00etan irekitzen da eta goizeko 01:00ak arte dago aukera frontoian kokatutako azokara joateko. Garagardo festan ateratzen den dirua herriko ikastolara bideratuko da, herrian sortzen ari diren hezkuntza beharrei erantzuteko. I. GARCIA



VILLABONA-AIZTONDO ▶ TXIRRINDULARITZA

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa erabakiko da bihar

Irrintzi elkarteak antolatuta elite, jubenil eta kadete mailako txirrindulariak lehiatuko dira; gaur arratsaldean, berriz, kronoeskalada egingo dute Zizurkilen

IMANOL GARCIA

Villabonako Irrintzi Txirrindulari Elkarteak emakumezkoen Euskadiko Txapelketa antolatuta dute biharko. Kadeteak, jubenilak eta elite mailako

txirrindulariak ariko dira. Lasterketaren hasiera 10:00etan izango da eta 12:30eak inguruan bukatuko dute, antolatuak kalkulatuak ordutegiaren arabera.

Eskualdeko ordezkaritza izango da hiru mailatan. Elite mailan Gasteizko Urrats taldeko Arantzazu Azpiroz berastegierra eta Ainhoa Pagola tolosarra ariko dira eta Oriako taldeko Dina Mendikute. Jubenil mailan Urrats taldeko Maria Altuna zizurkildarra eta Oriako taldeko Amaia Etxedona tolosarra eta Maider Balerdi lizarzarra. Kadete mailan Urrats taldeko Udane Sarasola aneotarra eta Oriako taldeko Irene San Sebastian tolosarra.

Maila guztiek Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik atera eta Villa-

bonako Berdura plaza parean amaituko dute, baina kilometro kopuru ezberdinak burutu behar dituzte. Elite mailan 82 kilometro egingo dituzte, jubenil mailan 64 kilometro eta kadeteetan 35 kilometro. Kadeteak bailara inguruan ariko dira, eta jubenilak eta elite mailakoak Tolosaldeko errepideetan ariko dira lehian. Bi maila hauek txirrindularientzat Altzoko igoera izango da lasterketako unerik gogorrena eta seguruenik hor puskatuko da proba: faboritoek aldapa erabiltzen saiatuko dira ihesi egiteko.

Emakumezkoen lasterketa hauetan ohi denez, Iparraldeko eta Espainiako txirrindulariek ere parte hartzen dute. Horrela bi podio izateko aukera

egon daiteke, hau da, lasterketa irabazten duenak eta bestalde Euskadiko Txapelketa irabazten duenak. Saikopen orokorraz gain, mendiko saria ere emango dute.

Kronoeskalada

Biharko Euskadiko Txapelketa gain, gaur ere beste proba bat izango dute txirrindulariek. Irrintzi elkarteak asteburua borobiltzeko kronoeskalada proba bat antolatuta dute. Hiru mailako txirrindulariek hartuko dute parte.

Ibilbideak hiru kilometro inguru izango ditu eta Zizurkil behetik hasi eta Zizurkil Goian dagoen hilerri parean amaituko da. Probaren hasiera 17:00etan izango da.

EMAKUMEEN EUSKADIKO TXAPELKETA 2005
ZIZURKIL VILLABONA

EGUNA - ORDUA	
2	17.00
LEHENA	
3	10.00
LETZENA	

TOLARE-SAGARDOTEGIA
Jatorrizko Sagardoa

ondo pasa sanpedroak!

Sagardotegia - ASTEASU
Tel.: 943 69 02 83
Zumalkardi Baserría - ANOETA
Tel.: 943 65 26 22

charanga

%50eko merkealdia

Nafarroa etorbidea, 14
TOLOSA
Tel.: 943 65 02 99

SAN PEDROAK ▶

Jaiak azken txanpan sartzen dira

Atzo Koadrilen Eguna izan zuten Asteasun; gaurko ere hamaika ekintza

ERREDAKZIOA

Asteburua ekitaldiz beteta dator, San Pedro zaindari duten herrietan. Bada, gaur eta bihar bitarte Areso, Asteasu, Larraitz, Leaburu eta Urkizu jai giroan murgilduko dira, jaien azken txanpan. Etxeko txikiengizako, gazteentzako eta helduegontzako. Nahi adina aukera izango dituzte eskualdeko herri hauetan ondo pasa nahi dutenek. Baina jaiak aurreko egunetan hasi dira herri hauetan eta atzokoan ere Areson eta Asteasun izan zuten zer gozatu.

Gazte asteasuarrentzat egun berezia izan zen, festetako euren egun handia, Koadrilen Eguna, alegia. Zapiak eta alkandorak soinean, herriko plazan bildu ziren elkarrekin bazkari legea egiteko. Giro polita sortu zuten bertan, eguraldia lagun. Etxeko txikitxoek, dena den, ez zuten aspertzeko astirik izan arratsaldean, zeren txiki eta poney-ekin. Eta, ohi bezala, musika ere ez zen falta. Urolako trikitilariak eskainitako erromeriaren eskutik. Gaualdean, berriz, herri afaria egin zuten, trikitilarien doinuek alaituta. Gaur, berriz, gaztetxoak izango dira protagonistak, haurren egunean. Goizean krosa korrituko dute eta, ondoren, marrazki lehiaketa egingo dute. Haurrek ere mahai inguruan bilduko dira eguerdi aldean bazkarirako. Honen ostean, Korri, Xalito eta Brinko pailazoan emanaldia ikusteko aukera izango dutelarik.

Dantza solteko saridunak

Herenegun Asteasun bertan 16 urte gorako dantza solteko X. lehiaketa egin zuten. Bertan «maila handiko» zortzi bikotek hartu zuten parte. Irabazleak, Asier Ena eta Maite Lazkano bergararrak izan ziren, txapela, zapia, trofeoa eta 140 euro eskuratu zituztelarik. Bigarren Aitzol Ena bergarra eta Miren Ilarreta donostiarrak izan ziren, trofeoa eta 130 euroko sariarekin. Hirugarren Zegamako Xabier Azurmendi eta

EGITARAUA ▶

ASTEASU

GAUR ▶

Haurren Eguna.

11:00. Haurren arteko krosa eta marrazketa lehiaketa.

14:00. Haurren arteko bazkaria. Ondoren, Korri, Xalito eta Brinko pailazoak.

17:00. Asteasuko XIX. Mus Txapelketa Herrikoia frontoian.

23:00. Abiba Diskojaia, DonostiDJ's-ekin.

URKIZU

GAUR ▶

20:00. Suziriak eta kanpaik.

21:00. Auzoko afaria. Gaua trikitilariak alaituko dute.

ARESO

GAUR ▶

10:30. Baserrietara eskean.

15:30. Eskekoen bazkaria, Pake toki elkartearen

17:30. Ginkana jolasa, plazan.

18:30. Dantzaldia, Salbador soinujolearekin plazan.

21:30. Herri afaria, Pake toki elkartearen.

Bergarako Yanire Urbieta bikotea izan zen, trofeoa eta 120 euro eraman zituztelarik. Lagarren Xabier Segura eta Lierri Martiarena hernaniarrak izan ziren trofeoa eta 110 euroekin. Bosgarrenak Mikel Mujika eta Nagore Narbate asteasuarra izan ziren, beraiantzat trofeoa eta 100 euro izan zituztelarik. Gainontzeko partaideek ere 100 eurora eskuratu zituzten.

Areson asteburuan izango dituzte jaien egun indartsuenak, baina atzo prestaketa lanetan hasi ziren Lagun arteko kideak, afaria egin baitzuten Pake toki elkartearen. Gaur, berriz, goizean goiz ekingo diote festari Areson eta gaua bitarte ez dute atsedenik hartuko herritarrek.

Tolosaldean eta Leitzaldean badute, beraz, herritarrek festarako nora jo. Izan ere, ekitaldiz blai datoz bi egun hauek, aprobetxatzeko ezinhobeak.



Giro bikaina sortu zuten herriko plazan bildutakoak. N. LATABURU

ALEGIA ▶

Xantoxen omenezko txapelketako finala gaur

Kokox Klan eta Etxale kuyons taldeek jokatuko dute, 18:00etan eskolan

N. LATABURU

Apirilean hasi zen Xantoxen omenezko txapelketa bere amaierara iritsi da. Horrela, gaur 18:00etan Alegiako eskolako patioan finala jokatuko dute, helduen mailan, Kokox Klan eta Etxale kuyons taldeek.

Txikiek, aldiz, ez dituzte oraindik neurketak amaitu eta atzo jokatuakoen ostean, datorren astean jokatuko dituzte finalerako beste partiduak.



TOLOSA ▶

Umeentzako dantza ikastaroa, 2005/06rako

Izen-ematea hilaren 6, 7 eta 8an izango da, Udaberrik igerileku ondoan duen lokalean

ERREDAKZIOA

Udaberri dantzari taldeak 2005/06 ikasturterako umeei zuzenduriko dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea hilaren 6, 7 eta 8an izango da Igarondo igerilekuaren ondoko lokalean. Bertan ere eman ahaliko da izena, 17:00etatik 20:00etara. Matrikulak 10 euro balio ditu.

Ikastaroak 4 urtetik gorako haurrei zuzentzen zaizkie, adinen arabera taldeak egingo dituztelarik. Entseguak irailaren 12an hasiko dira Igarondo igerilekuan eta ikastaroak 9 hilabeteko iraupena izango du.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 -

- 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KIROLA

Maila mantentzeko aukera

Bi taldek ez dute izenik eman eta Ibarrek 1. Maila A-n jarrai dezake

ERREDAKZIOA

Aurreko denboraldiko maila mantentzeko «aukera handiak» ditu Ibarra areto futbol taldeak, bere arduradunek jakinarazi dutenez. Denboraldi honen bukaera taldea mailaz jaitsi egin da, Nafarroako Unibertsitatea taldea Zilarrezko Mailatik jaitsi egin delako eta horren ondorioz, ez kirol emaitzengatik. Talderen batek maila uzten badu, Ibarra da maila mantentzeko eskubidea duen lehen taldea.

Ekainaren 27an aurreinskripzioa egiteko azken eguna zen eta uztailaren 11 arte egongo da izen-ematea zabalik. Lehen unetik, taldeko arduradunak maila salbatzeko lanean hasi ziren. 1. Maila Ako jaitziera eta 1. Maila Bko goerak

ikusita, 17 taldeko multzoa geldituko litzateke. Ibarrek 18 taldeko multzoa izatea proposatu zuen euskal federazioan —kide bat Madrileko batzordeko kidea da—, askoz ere kopuru «normalagoa», jardunaldi kopurua mantenduz atsedetik ez litzatekeelako izango. Euskal Ligak eskaera jaso eta Madrilen defendatu egingo zuela agindu zuen. Hori zen maila mantentzeko lehen aukera.

Konpetizioa bukatu bezain laster, bigarren aukeraren berri izan zuten. Aurreko denboraldia Nafarroako Unibertsitateak izan zituen «arazo larriak» ikusita, konpetizioa utzi egingo zuela azaldu zuen. Ibarrek plaza hori okupatuko luke.

Hilabete hauetan beste aukera bat sortu da. Multzoko txapeladuna izan zen Peñucasek

igo behar zuen Zilarrezko Mailara. Horretarako Piterman jaunarekin —Alaves futbol taldeko lehendakaria— hitz eginda zeuden, berak jarri behar zuelako beharrezko diru kopurua. Baina ukrainiarrak taldea Gasteiza eramatea jarri zuen baldintza gisa eta areto futboleko Liga Nazionalak ez zuen baldintza hori onartu, arautegia aurrera aurka dihoalako. Horrek Peñucas taldea eta Piterman jaunaren arteko harremanak eten zituen. Peñucas taldeko lehendakariak aurrekonturik ez zutela eta Zilarrezko Mailara igotzen ez baziren konpetizioa utzi egingo zutela adierazi zuten elkarrizketa batean. Ekainaren 21 ean itxi zen Zilarrezko Mailako izen-emate epea eta Peñucasek ez du izenik eman.

Aurreko edizioak bigarren

sailkatua Candesa izan zen eta Peñucasen egoera ezagutuz, bere gestioak egin zituen eta mailaz igo den taldea izan da. Aurreko astean Peñucaseko lehendakariak ez zutela parte hartuko adierazi zuen berriro eta une honetan ez Nafarroako Unibertsitatea ez Peñucas ez daude 1. Maila A-n izena eman dutenen artean, beraz badirudi konpetizioa utzi egin dutela.

Hiru fronte ireki dira eta batez ere azken biei esker piper-tarrek maila mantendu dezakete. Aste honetan 1. Maila A —iazkoa— jokatzeko taldea prestatzeko esan diote Ibarri Madrildik, nafarrek eta kantabriarrek ez zutelako izenik eman. Ibarrek aurreinskripzioa bi mailatan egin zuen badaezpada ere. Baina uztailaren 11 bitarte ez dago ezer finkorik.

IBARRA ▶ KIROLA

Tourrerako porra, euskal preso eta iheslarien alde

ERREDAKZIOA

Gaur hasten da Frantziako Tourra, txirrindularitza proba ospetsua. Honen harira, euskal preso eta iheslarien aldeko porra antolatu dute Ibarren. Izena emateko epea gaur bertan amaitzen da lehen etapa hasi baino lehen, hau da, arratsaldeko 16:00ak baino lehenago. Izena emateko Atari tabernan seilaturako boletoa aurkeztu beharko da, eta 12 euro ordainduko dira. Antolatzaileek jendea animatzera bultzatu nahi du, orain arte «jende askok eman baitu izena». Porra honetan parte hartzeko oinarri batzuk bete beharko dituzte par-

te-hartzaileek. Antolatzaileek eginiko zerrendaz kanpoko txirrindulariak ere onartuko dira. 10 txirrindulari eta bi ordeko aukeratu behar dira. Hauetako bat irtengo ez balitz, lehen ordekoa sartuko litzateke, eta bi badira, biak. Halaber, 3 txirrindulari talde hautatu behar dira. Etapako lehen lau sailkatuak 5, 3, 2 eta puntu bat esku-ratuko dituzte, hurrenez hurren. Etapa berezietan, berriz, lehen bost sailkatuen artean banatuko dira puntuak, 10, 7, 5, 3 eta 1ekin. Sailkapen orokorrek ere puntuatzen du, bai eta lehiakortasuna, erregularitasuna, mendia, gazteak, eta taldekako irabazleak ere.

hilberriak ▶

eskakelak: 19:00ak arte • 943 65 56 95 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Klara Maiz Iraola

(Joxe Iztuetaren alarguna)

Atzo hil zen, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Ama, amona, zure begien dizdira eta irrifar goxoa izan dira gure gidari.

Zure seme-alabak eta bilobak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko 17:00etan, San Joan Bataiatzailearen parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Iriondo baserria.

ABALTZISKETA, 2005eko uztailaren 2a

oharra ▶ gorputz bella Tolosaldeko Funeraria Vascongada Beilatokiaren egongo da.

LIZARTZA ▶ GIZARTEA

IV. Gazte Eguna antolatu du gaurko Gaztetxeak

IMANOL GARCIA

Lizartza Gaztetxeak antolatuta gaur IV. Gazte Eguna egingo dute herrian. Hasieran preso zegoen Gaztetxeako kide baten alde egindako ekitaldia izan zen eta orain Gaztetxeak herriko preso politiko guztiak eta beren sendeak omenend antolatutako eguna bihurtu da. 19:00etan hasiko dira ekitaldiak, herrian zehar egingo duten poteoarekin. Ondoren Gaztetxeak prestatutako afora egingo da, 21:00etan. Aurreko urtean 85 bat lagun bildu ziren aforan eta aurten ere hainbeste biltze espero dute antolatzaileek. Horregatik,



lazgo Gazte Eguna. HITZA

mahaiak espaloiara aterako dituzte, eguraldiak laguntzen badu. Gauerdiatik, musika emanaldiak izango dira. Anoretako Jone bakarariak eskainiko du kontzertua eta ondoren herri bertako Izeba Pilarren Ilobak taldea ariko da. Amaitzeko Azkoitiko Janear-J perkusio taldea. Gazte Egunean Atarrabiko gazteek ere parte hartuko dute seguruenik. Izan ere, Gaztetxeok gonbidatuta bertako Gazte Asanbladako 30 bat lagun aseturua igarotzen ari dira Lizartzako Barnetegian. Eraikina orain denbora gutxi txukundu dute herriko talde batzuku eta erabilpena eman nahi diote, Barnetegia irauli eta etxeak egiteko asmoari aurre egiteko eta ekitaldien-tzako tokizat aldarrikatzeko.

iragarki laburrak ▶

LANA
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da.
Deitu 943 69 19 33.

SALGAI
Autoa. 100 zaldiko Seat Ibiza TDI salgai, egoera paregabe.
Deitu 626 61 97 93ra.

LEITZA ▶ PILOTA

Plazako txapelketaren finala, gaur

Gaur arratsaldean, 18:30etik aurrera jokatu da Plazako Eskuzko XIII. Pilota Txapelketako azken jardunaldia, bi partidurekin. Lehendabiziko, 3. eta 4. lekuak erabakiko dituzte, I. J. eta A. Mariñelarena anaiek, I. Alduntzin eta J. Sagastibelzaren aurka jokatu. Ondoren etorriko da txapelduna erabakitze tenorea: finala, Igor Aldaia eta Unai Olanok osatutako bikoteak eta Harkaitz Bengoetxea eta Aimar Sagastibelza bikoteak jokatu dute, nor baino nor. Tantoak kantatuz, gaur bukatuko da, beraz, txapelketa. Ez, ordea, bikote bakoitzak dagokion saria jaso gabe: txapela eta garaikurrak, irabazleentzat; garaikurrak gainerakoentzat. Jokalaririk hoberenak ere saria izanen omen du.

ARESO ▶

San Migelen etorrera atzeratu egin dute

Bihar ekartzekoa zuten San Migel aingeruaren irudia Aralarko Santutegitik herri-ara, baina elizatik aditzera eman dutenez, hilaren 16ra arte atzeratu dute, «igandean San Pedrorekin beste prozesio bat egitekoa delako», argitu zuten. Egun horretan, larunbata izanik, 18:00etarako ekarriko dute irudia herri sarrerara, Patxikuneko atarira, eta «ongi etorria» egin ondoren, gero prozesioa eginen dute herrian barrena, elize-raino, ohi duten moduan.

LEITZA ▶

Plater tiraketa eginen dute bihar Baztarlan

Leitzako ehiztari elkarteak antolatuta, bihar plater tiraketa saioa eginen dute Baztarlako gainean, 16:00etatik aurrera eginen ere, «beti ere giroak laguntzen badu», ziotenez. Aditzera eman zutenenez, «herritarrentzab», presatu dute saioa, eta horretan parte hartu nahi duten herritarrek, bertara joan besterik ez omen dute egin behar, «beharrezko» tresnak hartuta. Bide batez, elkarteko bazkide diren guztiei saiora joateko gonbidapena egin diete.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Jose Mari Razkin, bere familiarekin, saria jaso ondoren. A. ARSUAGA

Zilarrezko Domina jaso du Razkinek

«Nafarroako Kirol Merezimenduaren Zilarrezko Domina» eman zioten atzo, Jose Mari Razkin leitzarrari. Iruñean, Nafarroako Jaurregian egin zuten ekitaldia eta Nafarroako Gobernuo Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariak banatu zituen sariak, beste 16 lagunekin batera, Osasuna futbol taldeak ere berea jaso zuelarik, Honek Urrezko Domina. Horrela, «25 urte baino gehiagoz Aurrera KEan futbolaren alde egin duen lanagatik» eman diote saria Razkini. Sarirako izendapen proposamena Aurrerako areto futboleko sailak egin izan behar zuen, beste batzuen artean, Hirzak jakin ahal izan zuenez. Kontuak kontu, bera laguntzera joandakoe saritua «gustura eta pozik» zegoela adierazi zuten atzo, ekitalditik itzuli zirenean.

ARESO ▶ KIROLAK

Sokatira txapelketan, Areson izanen da 560 kiloko saioa bihar

Herriko taldeak bere itxaropenak pisu honetara bideratuta ditu eta Goierri A-rekin lehia bizia jokatu du



Hain justu bihar urte bete dela, egin zuten Areson txapelketako jardunaldia. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren barrenean, bihar Areson jokatu da 560 kiloko pisuari dagokion jardunaldia. Tiratzaileak goizean goiz etorri beharrik izanik ere, pisaketa 8:30ean hasi eta 10:00ak bitarte eginen baitute, lehia 11:30ean hasiko da. Aresoko plazako larratxean.

Eta lehia bizia izanen dela iragarrita eta ziurtatuta dago. Sei talde ari dira parte hartzen pisu honetan, Areso tartean dela, Gaztediko bi talde, Getxo, eta Goierriko beste bi. Jakina da, txapelketa honetan etxeko taldeak apustu eta itxaropen nagusiak 560 kilotan jarrita diutela, horrela, burruka bizia darama, txapela eskuratzeko

asmo sendoa du eta. Gauzak horrela, ekainaren 25ean egin zuten lehen jardunaldi hartan agerian gelditu zen, Aresok zein izanen duen arerio nagusi: Goierri A taldea. Izan ere, Barrikako saioan, biek egin zuten tiraldietatik aurrenekoa ikusgarria izan omen zen, 12 minutu luzekoa, goierritarren aldeira, hain justu, aresoarrek baino puntu bat gehiago eskuratzeko baliagarri suertatu zitzaiena.

Biharko saioan ere, ikusmina bizi dago, beraz. Etxekoentzat aukera ona da, lagunuen aurrean, herrian bertan aritzea eta tiralekua ere ezagutzeak abantailaxoa ematen diela esan daiteke, hala ere indarrak frogatu beharrene izanen dira, bizkaitarrak ere horretara etorriko dira eta.

SAILKAPENA ▶

560 KILOTAN
Barrikako jardunaldia.

1. Goierri A	6 puntu
2. Areso	5 puntu
3. Gaztedi A	4 puntu
4. Gaztedi B	3 puntu
5. Gebo	1,5 puntu
5. Goierri B	1,5 puntu

560 kilotan, ligaxka modura ari dira jokatzeko txapelketa, alegia, saio batetik bestera, puntuaketak gehitu egiten dira, finalekoak barne, 3 saioetan azkenean puntu gehien eskuratuak dituenak irabaziz. Horrela, Aresok 5 puntu ditu, Goierri 1 gehiago. Bihar bost tiraldi, bina sokakoak, egin behar dituzte, denek denekin.

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.

Salgai (Tolosa). Pisu Belate Ibiltokian, Bista zoragarriak

Salgai (Tolosa). Pisu San Frantzisko ibiltokian, 126m2.

Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibiltokian.

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari kalean.

Alokatzeko (Tolasaldean). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, Ibaran.

Alokatzeko (Salbu). 4 edo 6 lagunentzako 2 logelako apartamentua, Igerifekuarekin.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurritan

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 2a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO
EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zaintzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Langostino Moto
Festa: festa hasiera
14:00etan; jokoak 17:30ean;
Stuntman ikuskizuna
19:30ean; afaria 21:00etan;
Lobo electrico, Obligaciones
eta Los padrinos taldeen
kontzertuak 23:00etan eta
show erotikoa 24:30ean.
Arratsalde osoan zezen
mekanikoa eta *show bike*-a.
Tolosa. Azoka ekologikoa
Trianguloan 9:00etatik
14:00etara.

Tolosa. Tolosa CFk binakako
37. Pala Txapelketa antolatua
du Berazubiko frontoian. Izen-
ematea: bulegoetan
17:00etatik 20:00etara
(Berazubi estadiumean, 943
67 17 49) edo 607 447 677
telefonoan (Pello). Gaur da
azken eguna.

Tolosa. Leidorren 16:30ean
Euriaren seme-alabak,
19:30ean *La guerra de las
galaxias III* eta 22:00etan
11:14 Destino fatal.

Tolosa (Amaroz).
Txirrundulari proba 10:00etan;
fatxada eta balkoi loratuen
lehiaketa; haur jolasak,
buruhandiak; ajoarriero
lehiaketa; bazkaria 14:30ean;
haur jolasak; mus txapelketa;
Tolosako Musika Banda eta
Abeslari Lagunak 20:00etan;
danborrada 22:00etan; Disko-
Top festa eta karroza
dantzaldia Zelaia anaiekin
24:00etan.

Tolosa (Urkizu). Suziriak eta
kanpaiak 20:00etan; afaria eta
erromeria trikitalariek.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.


Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea 2. 943
67 01 28.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik.

AGURRAK ▶



Aldapa igotzea gogorra izan arren, gailurrean Gora Euskal Herria askatuta! oihukatuko dugu askatasuna mendian. Eutsi gogor!
Jokin, Haimar, Maite eta Iker, Eider eta Ekaitz. Ane, Ekiñe eta beste biloba guztien partetik muxu bat.



URTE ASKOAN

Zuberoa Mayo Sanchez
(Zizurkil). Gaur 12 urte. Zorionak
aita, ama eta ahizparen partetik.

URTE ASKOAN

Aimar (Tolosa). Gaur 7 urte.
Muxu handi bat maite
zaitzgunon partetik.



ZORIONAK, AITOR!

Besarkadarik goxo ta iraultzaileena. Eutsi gogor eta laister
arte. Jo ta ke irabazi arte! Orendaingo lagunak.



ZORIONAK

Txarama eta Aldaba txiki aztoratu dituen bikotea.
Urte askon segi halaxe!

HITZA,

zorion agurren tarte

Urtebetetzek,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA
Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

UDA HONETAN JANTZI EZAZU HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAren egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA